

EROSKI-K HITZARTU DITU ZORRA BIRFINANTZATZEKO OPERAZIOAREN BALDINTZAK FINANTZA EGITURA BERRANTOLATZEKO

- **Kooperatibak hitzartu ditu operazio eraldatzaile baterako baldintzak, bere finantza-egitura berrantolatu, merkatu eta sinplifikatuko dituztenak.**
- **Bi urte eta bi hilabete lehenago amortizatu ditu Mendeko Obligazioak, bai eta 2023ko bonua ere, eta kaudimena sendotu du nazioarteko bonu berri bat jaulkita eta mailegu sindikatu bat formalizatuta.**
- **Operazioak Finantzen Euskal Institutuaren babesa izan du, eta Espainiako eta nazioarteko finantza erakunde nagusien partaidetza.**

Madril, 2025eko azaroaren 20a.- [EROSKIk](#) arrakastaz hitzartu du birfinantzatzeko operazio eraldatzaile baterako baldintzak zorraren egitura berrantolatzeko. Hala, finantza eredu eraginkorrago eta iraunkorrago bat finkatu du. Operazioan, konbinatu egin ditu **500 milioi euroko nominala duen bonu senior bermatu bat, 2031n** iraungitzen dena eta **% 5,750ko** interes tasa duena; horrekin batera, **mailegu sindikatu berri bat sinatu du, 370 milioi eurokoa, 2031n** iraungitzen dena, eta **80 milioi euroko kreditu lerro berri bat**, hori ere 2031n iraungitzen dena.

Bonuen baldintzak eksklusiboki daude bideratuak erakunde inbertitzaileentzat, eta baldintzak finkatzeko prozesua igaro eta CNMVri jakinarazi ondoren itxi da, azaroaren 17an. Bonuak jaulkita eta finantza tresna berriak martxan jarrita lortutako funtsei esker, **aurretiaz amortizatu ahalko dira** 2028an iraungitzen diren **EROSKiren Mendeko Obligazioak –209 milioi euro–**, orobat **2023an jaulkitako bonu senior bermatua** (%10⁵%, 2029an iraungitzen dena). Horretaz gainera, baliabideak bideratuko dira taldeak izenpetutako beste mailegu batzuk itzultzeko eta operaziotik eratorritako interesak, amortizazio primak, komisioak eta gastuak ordaintzeko.

Operazioak nabarmen indartuko du Taldearen finantza egitura, zorpetze tresnak sinplifikatuko baititu, finantza kostua hobetu eta iraungipen epe luze batzuk ezarri;

eta horrek, aldi berean, oraindik eta gehiago egonkortu eta normalizatuko du egitura. Hala, etapa esanguratsu bat itxi ahalko da EROSKI bere finantzak antolatzeko azken urteetan garatu duen prozesuan.

Merkatuaren konfiantza eta babes instituzionala

Operazioak **harrera bikaina izan du finantza erakundeek aldetik**; horrela, EROSKIren proiektu kooperatiboarekin duten konpromisoa indartu dute erakundeek.

Espainiako **Kutxabank, Laboral Kutxa eta ICO** erakundeek jarraitzen dute proiektuan konfiantza gordetzen, Espainiako eta nazioarteko beste erakunde batzuekin batera; horien artean, **Finantzen Euskal Institutua, BBVA, Santander, CaixaBank, Banca March, Cajamar, Caja Rural, Rabobank, Intesa Sanpaolo eta Deutsche Bank**. Horrek guztiak erakusten du konfiantza dagoela Taldearen eboluzioan eta haren eredu kooperatiboaren sendotasunean.

Era berean, **Finantzen Euskal Institutuak eta ICOK** emandako babesak, agerian jartzen du konfiantza dagoela kudeaketa ereduan eta kooperatibak eragile ekonomiko esanguratsu gisa ingurunean duen zereginean.

Operazioak **ez du zorra areagotu**, baizik eta **baldintzak berrantolatu eta hobetu**. Hari esker, finantza kostua arinduko da, eta epeak taldearen ziklo operatiboarekin lerrokatuko dira.

"Operazio honek finantza egitura sinpleago eta eraginkorrago bat finkatuko du; gure kaudimena areagotuko du, eta zorraren kostua hobetuko. Hala, posizio sendoa hartuko dugu datozen urteetarako", adierazi du **Rosa Carabelek**, EROSKI Taldeko CEOak.

Emaitza sendoak eta begia etorkizunean

2024ko ekitaldiak, **emaitza paregabeak** izan zituen EROSKIrentzat: pilatutako galerak berreskuratu ahal izan zituen, erreserbak sendotu eta kooperatiba posizio sendoan jarri oraingo pauso honi ekiteko.

2025eko lehen seihiilekoan, EROSKIk %2,9 handitu ditu salmentak, eta %10,6 igo du bere emaitza. EROSKIk erakutsi du hazkuntza sendoa izan duela: 2.949 milioi euroko salmenta gordinera iritsi da, eta 55,5 milioiko emaitza garbia izan du.

Operazio honekin, kooperatibak **bere EBITDA halako bi baino gutxiagokoa den zorpetze mailan finkatzeko helburuari eutsiko dio**, eta horrek indartu egingo ditu haren finantza ereduaren iraunkortasuna eta merkatuen konfiantza.

"Birfinantzatze honi esker, erakundeek eta instituzioek gure proiektu kooperatiboan duten konfiantza indartuko da, eta finantzaketa-eredu eraginkorrago eta lehiakorrago batean aurrera egiten jarraitzeko aukera emango digu", adierazi du **Rosa Carabelek**, EROSKIko CEOak.

2023–2026ko Plan Estrategikoaren parte da operazioa. Plan horrek finantza-politika zuhurraren alde egiten du, inbertsio selektiboak jasotzen ditu modernizazio komertzial eta logistikoa eta, orobat, formatu iraunkor eta gertuko hedapena.

"Kooperatibak etapa berriari lasaitasunez egingo dio aurre, jakinda emaitza onak dituela, merkatuen aitortza duela eta eredu ekonomiko eta soziala indartsu doala garapen iraunkorrerantz eta luzera begirako egonkortasunerantz", amaitu du Carabelek.

Operazio hau amaituta, ez da bakarrik hobetuko Taldearen finantza eraginkortasuna, **ziklo estrategiko paregabe baten itxiera ere bada** EROSKIrentzat. Hala, datorren aldirako oinarriak ezarriko ditu, eta taldeak sendo eutsiko dio bere eredu sozioenpresarial bakanean.

Etap berri horretan, EROSKIk esplizituki adieraziko ditu kontsumitzailearekin dituen konpromisoak, eta jarraituko du negozio eredu indartzen, marka propioaren bidez prezioen lehiakortasuna hobetzen eta freskoen atala bultzatzen. Horrekin batera, eraginkortasun handiagoa bilatuko du prozesuetan, merkatuko joerei etengabe erantzuteko.

Taldeak jarraituko du hazi ahala denda propioak eta frankizia erakoak irekitzen, **betiere pertsonak bere estrategiaren erdigunean jarrita: bai langileak eta bai kontsumitzaileak.**

Helburu argi batekin: **bera jarduten den ingurunea aberastea eta elikadura eta bizimodu osasungarriagoa sustatzea.**

Finantza egitura sinpletu eta iraunkor batekin, EROSKI etapa berriari helduko dio **egonkortasunez, gogoz eta luzera begirako ikuspegiz**, eta bere eredu kooperatiboaren lidergoa sendotuko du bera jarduten den lurraldeetan.

EROSKIri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.